

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2003

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Judo eta Kirol Elkartuen Euskal Federazioaren Estatutuetan aldaketak onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituen.

Judo eta Kirol Elkartuen Euskal Federazioa EAEko Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1986ko apirilaren 25ean, 82 zenbakiarekin. Federazioaren Estatutuen aldaketak aurkeztu dira orain.

Judo eta Kirol Elkartuen Euskal Federazioak, 2021eko urriaren 3an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean, bere estatutuen artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketak bat datoz urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Judo eta Kirol Elkartuen Euskal Federazioaren Estatutuen 3., 5., eta 6. artikuluen aldaketak onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikulu horiek honela idatzita egongo dira:

3. artikulua.– Judo eta Kirol Elkartuen Euskal Federazioaren egoitzaren helbidea hau da: Anoeta pasealekua 7 – Behea 5, Donostia; PK: 20014; Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

5. artikulua.– Judo eta Kirol Elkartuen Euskal Federazioak bere kirol modalitateari dagokion euskal kirol federatua ordezkatzeko du Estatuan.

6. artikulua.– Bere xedeak betetzeko, federazioak funtzio hauek izango ditu:

a) Dagozkion kirol modalitateak ordezkatzeko Estatuan, eta, hala badagokio, federazioa beste erakunde batzuei atxikitzeko araubidea zehaztea.

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio bidea eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 2a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,
JON REDONDO LERTXUNDI.